



## Gaur hasiko dira bidegorria kentzen Tolosako Pablo Gorosabel kaletik

**ADOSTASUNA** ▶ Udalak, dendari elkarteek eta  
bizilagunek «adostutako erabakia» izan da ▶ 2



Hainbeste kexaren ondoren, gaur hasiko dira bidegorria Pablo Gorosabel kaletik kentzen. JOXEMI SAIZAR



**'Basetxea'**-tik espero  
zuen sariarekin atera da

**BERROBI** ▶ Agurtzane Belauntzaran finalera  
iritsi da ETBko saioan; «gustura» dago  
programak atek ireki dizkiolako ▶ 6



UDA HONETAN JANTZI EZAZU  
**HITZAREN** KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

**OSKI** GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21  
TOLOSA

## AISIALDIA ▶

**Atsedena-ren  
Familia Egunerako  
izen-ematea**

Atsedena aisialdi taldeak (Santa Maria parrokia) kanpaldia antolatu du aurten ere haur eta gazteekin, uztailaren 24tik abuztuaren 14ra, Errioxan (Espainia). Abuztuaren 7an Familia Eguna egingo dute, «kanpamendua ezagutu eta egun eder bat pasatzeko». Senideak, lagunak eta, «oro har, guztiak» gonbidatu dituzte. Joan nahi duenak «lehenbailehen» katekista bati esan edo 628 88 34 35era deitu behar du.

## INFORMATIKA ▶

**KZgunea itxita  
egongo da  
abuztuan**

Opor garaia da askorentzat abuztua. Tolosako KZgunea ere, uztailako ikastaroak amaítuta, atek itxiko ditu hilabete horretan. Irailaren 1an, osteguna, hasiko da berriro martxan, ohiko ordutegiarekin: 09:00etatik 13:00-etara, eta 16:00etatik 20:00-etara. Iraileko ikastaroak prest dituztela gogoratu dute, era berean; egunotan dago informazioa jaso eta izena emateko aukera (Pablo Gorosabel, 34. 943 65 37 20).

## AISIALDIA ▶

**Laredoko Lore  
Gudara irteera  
Harizperekin**

Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak irteera antolatu du Laredoko Lore Gudara (Kantabria, Espainia), abuztuaren 26an. Santurtzi (Bizkaia) bisitatuko dute lehenik. Gero, Laredora joango dira: azoka ikusiz, kalejira egingo dute Urdiña Txiki txarangarekin; bazkaldu eta gero, Lore Guda ikusiko dute. Izen-ematea zabalik da elkartearen (Emeterio Arrese). 27 euro ordaindu behar dute bazkideek, eta 30 besteeak.

## UDALA ▶

**Diru laguntzak  
eskatzeko epea  
kirol taldeentzat**

Tolosako Udalak zabalik du egunotan kirol elkarte eta klubuen egiturak garatzeko diru laguntzak eskatzeko epea. Azken egunak dira, baina, horretarako: hain zuzen ere, hilaren 31an amaítuko da eskaerak egiteko epea. Diru laguntzak jaso nahi dituzten kirol taldeek eta klubek udaletxeko erregistroan aurkituko dituzte bete beharreko paperak eta eskaera egiteko informazioa eta argibideak.

## KIROLA ▶

**Sorosle baten  
premia du  
Tolosa CFk**

Sorosle baten premia du Tolosa CFk. Klubak adierazi duenez, abuztuaren 1etik (astelehena) irailaren 18ra (igandea) bitarteko lanaldia izango da. Lanpostu horretarako ezaugarriak betetzen dituenak gaurtik bertatik aurkez dezake bere burua. Izena emateko Tolosa CFren bulegoetara, 943 67 17 49 telefono zenbakira, deitu behar da «lehenbailehen»; egunero, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

## BIDEGORRIA ▶

# Gaur hasiko dira bidegorria kentzen Pablo Gorosabeletik

Tolosako Udalak, Igarondo eta Alde Zaharra-Dendak elkarteek eta Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarteak «adostutako erabakia» izan da



Pablo Gorosabel kaleko bidegorria, atzo; gaur hasiko dira bertako egokitze lanak. JOXEMI SAIZAR

## LEIRE MONTES

Eztabaida piztu du herrian Pablo Gorosabel kaleko bidegorriari. Alde bateko zein besteko iritziak mahai gainean jarri eta aztertu ondoren, zati horretako bidegorria kenduko du Udalak. Igarondo Merkatariaren Elkarteak, Alde Zaharra-Dendak elkarteak, Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarteak eta Udalak berak «adostutako erabakia» izan da. Gaur bertan ekingo diete egokitze lanei.

Elkarteek eta Udalak adostutako idatziaren arabera, bidegorriaren zati hori kentzeko erabakiak ez du esan nahi proiektua babesten ez dutenik. «Bidegorriaren proiektuak gure babes osoa izaten jarraitzen du. Aldi berean, Mugikortasun Mahaiari gure laguntza eskaintzen diogu», esan dute.

## ALDE ZAHARRA

«Bizikletek eta oinezkoek elkarrekin ibiltzen jarraituko dute, baina lehentasuna beti oinezkoek izango dute»

Gaur egun bidegorriak herrian duen ibilbidea mantentzeko konpromisoa hartu dute, era berean, Igarondo, Alde Zaharra-Dendak eta Alde Zaharreko Bizilagunen elkarteek eta Udalak. Hala, Alde Zaharra izango da salbuespen bakarra: «Bertan, orain arte bezala, bizikletek eta oinezkoek elkarrekin ibiltzen jarraituko dute, baina lehentasuna oinezkoek izango dute beti. Horretarako, lehenbailehen Pablo Gorosabel kaleko bidegorria kentzea adostu dugu».

Aurrerantzean ere «bidegorriaren aukera ezberdinei irtenbidea bermatzea» adostu dute guztiak. «bere behin betiko ibilbidearen definizioa gauzatu ahal izateko».

Era berean, Mugikortasun Mahaiari sinatutako akordioaren berri ematea adostu zuten lauren, «bere esku dauden proposamenak eta erabakiak har ditzan».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000  
etxetara**

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

FUTBOLA ▶

# Realaren bira herrira etorriko da larunbat goizean ekitaldiekin

Plaza Berrian izango da 10:00etatik 14:30era; 5 eta 15 urte bitarteko haur eta gazteek jolas egiteko aukera izango dute

IRATXE ETXEBESTE

Reala futbol taldea «gazteen-gana eta Gipuzkoa osora hurbiltzeko» helburua duen ekimena da Real Bira izenekoa. «Kirola, eta, batez ere futbola sustatzen» ahalegintzen dena. Bada Tolosara etorriko da Real Bira etzi, larunbatez, goizetik eguerdira bitartean herriko jendeari bateko eta beste ekimenak eskaintzeko.

«Gure kirolarien heziketan, Real partaide aktiboa izatea nahi dugu horrela, Real bira Gipuzkoa osora hurbilduz», adierazi dute egitasmoaren sustatzaileek. Era berean, udan «aisi alternatiba eskaini» nahi diete Gipuzkoa osoko haurrei, gazteei eta helduei, eta, gizarte osoari, berriz, «entitatearen balore etikoak eta kirol filosofia esportatu».

Realeko aholkulari Jesus Mari Zamorak eta Real Bira 2005eko koordinatzaile Alfredo Castresanak garrantzitsutzat jo dute Real Bira Gipuzkoako 88 udalerrietara eta udalerriri horietako guztietako gazteen-gana gerturatzeko, eta, horretarako, Gipuzkoako 15 udalerritan izango direla jakinarazi dute; baita iparraldeko bitan ere. Hala, joan den uztailaren 23an Irunen hasitako ekimena abuztuaren 11 bitarte —Hendaian bukatuko dute egun horretan— egingo dute herriz herri, eta herrietako bakoitzean 5 eta 15 urte bitarteko haurrei eta gazteei zuzendutako ekimenak eskainiko dituztela adierazi dute.

Besteak beste, futbol 3x3, fut-volley, tailerrak, argazkiak, irudien proiektzioak, zozketak... izango dira haurrek eta gazteek aukeran izango dituzten eskaintzak, eta horietan parte hartzeko ez dute deus ordaindu behariko; aski dute larunbatean Plaza Berria jostu, eta izena ematearekin, gostuko duten ekintzetan aritzeko.

Antolatzaileek 1.000 m2-ko azalera duen ingurua atonduko dute Real Bira-ren baitako ekintzak modu egokian prestatzeko. Hondartza dagoen herrietan hondar gainean ari dira ekimenak egiten, baina Tolosako Plaza Berrian izango da Real Bira larunbat goizean. HITZA



Tolosako Plaza Berrian izango da Real Bira larunbat goizean. HITZA

san halakorik ezin, eta Plaza Berriko luraren gainean presatuko dituzte jolasean aritzeko behar dituzten bitartekoak. 10:00etan hasi, eta 14:30ak bitarte, ekintza ezberdinak egiteko parada izango dute herritarrek, beraz, larunbatean.

Askotariko ekimenak abian

Reala Bira ez da Gipuzkoako futbol taldeak Real probintzia osora hedatzeko abian duen ekimen bakarra. Zubieta XXI erakusketa mugikorra, udalekuak, Anoetara bisita gidatuak, ate irekiak Zubietan, jubeni mailako nazioarteko futbol txapelketa, alebinen eta infantilen txapelketak, Campus Zubieta XXI... asko eta asko dira helburu horrekin Realeko ordezkariak antolatzen ari direnak. Real Bira 2005 horietako beste bat baino ez da.

5 eta 15 urte arteko herritarrek modu errazean hartu ahal izango dute parte etzi Real Bira-n. Plaza Berrian jarrita egongo den «karpa nagusian

izena eman ondoren ticket-a eta jolas ordua hartu beharko du-te, eta parte hartzea egokitzeko zaienean ikasteko eta ondo pasatzeko aukera izango dute», diote Zamorak eta Castresanak. Ekimenetan parte hartzeagatik edaria eta ticket-a jasoko dute doan.

Antolatzaileek iragarri dute garrantzitsua dela txartel hori gordetzea, abuztuaren 22an egongo duten zozketan parte hartzeko balioko dutelako bertan agertzen diren zenbakiek. Hiru lagunek asteburua Port Aventura pasatzeko aukera —hotela eta sarrerak barne—, Campus Zubieta XXI 2006an parte hartzeko hiru matrikula doan eta Realaren 2006 denboraldiko hiru kamiseta ofizial izango dira jokoan.

Zenbaki irabazleak www.birareal.com webgunean jakinaraziko dituzte, eta orrialde horretan izango da Real Bira-ren egunean ateratako argazkiak ikusteko aukera ere. Saria Anotako bulegoetan jaso behar da, Bira-ko ticket-arekin.

HEGATS IGERIKETA ▶

# Gorka Molina Espainiako txapelkun izan berri da

Tolosaldea IKT taldekoek emaitza bikainak lortu dituzte, Bartzelonan, hegats igeriketan

I. ETXEBESTE

Gorka Molina tolosarrak erakustaldi bikaina egin du berriz ere hegats igeriketako 100 eskafandrako proban, eta Bartzelonako Mediterrani taldekoen igerilekuan jokoan izan zen Espainiako Txapelketa irabazle izan da berriki. Hain zuzen ere, joan den asteburuan aritu ziren Tolosaldea IKT taldekoak txapelketa horretan lehiatzen, eta Espainiako 18 taldetako hainbat partaiderekin jardun behar izan zuten dominaren bat edo beste irabazteko. Urrezkoa lortu zuen Molinak 39.04 segundoko denbora eginda.

Ez da lehen aldia Gorka Molinak txapelketa hori irabazten duena. Bigarrenez eskuratu zuen aurreko asteburuan urte berean Espainiako txapelkun izatea, eta Tolosaldeko hegats igeriketa taldeko arduradunek «meritu handiko garaipena» izan dela diote, «maila handiko proba» izan zelako tolosarrari parte hartzea egokitu zitzaiona. «Hiru igerilarik lortu zuten beren denbora 40 segundotik jaiste, eta horrek adierazten du ez zela lehia erraza izan parte-hartzaileen artean».

Tolosaldea IKT taldeko beste sei lagunek jardun zuten Molinarekin batera Espainiako Txapelketan. 100 eskafandrako proban aritu ziren, baita ere, Ibai Orruñok «800 eskafandrako proba gogorra» ere egin zuen, «merituzko 7. postua lortuz». Molina bera laugarren izan zen 50 apneako proban. Marta Gaztañaga, Ainhoa Tolosa, Jon Gastesi eta Gregorio Mancisidri dira txapelketan aritu ziren gainerako



Molina, podiumean. HITZA

igerilariak. Lan bikaina egin zuten guztiek ere.

Gazteentzako txapelketan

Bestalde, Ferrolen (Galizia) izan ziren, Espainiako Txapelketa baino asteburu bat lehenago, Gazteentzako txapelketa, eta Tolosaldea IKT taldeko hainbat igerilarik jardun zuten han ere. Besteak beste, Mara Varelak «lan ezin hobea» egin zuen txapelketa osoan, eta, azkenean, brontzezko domina eskuratu zuen 25 apneako proban. Igerilariarentzat ez ezik, Tolosaldea IKT taldearentzat ere «oso emaitza ona» dela iritzen diote hegats igeriketako prestatzaileek, eta Varelaren lorpen berriak beste batzuk ere ekarriko omen ditu.

Valelarekin batera, beste bi neska gazte ere joan ziren Ferrrolera gazteentzako txapelketan lehiatzeko: Eneritz Etxeberria eta Nere Karrera, alegia. Txapelketetatik oraingoan dominak ekarri dituztenek bakarrik ez, gainerako igerilariak ere gogor jarraituko dute lanean aurrerantzean, «hegats igeriketan Tolosan etorkizuna badagoelako oraindik». Ea luzerako izaten den.

**TOLOSAKO UDALA**

IRAGARKIA

Ikusiz akats bat dagoela 2005eko uztailaren 19ko 136 zenbakiduna G.A.O.n EZ.1 "Laskoraingo Zabaldu" eremuko A.A.S.S.en aldekatez argitaratutako iragarkian, zuzendutako testua argitaratzen da:

Udalbatzak, 2005eko ekainaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran, honako dokumentu hau tramitean jartzea erabaki zuen:

EZ.1 "Laskoraingo Zabaldu" eremuko Arau Subsidiarioen aldekatearen aurrerakina.

Planeamendu Araudiko 125. artikulua xedatutakoaren arabera, aurrerakina HOGEITA HAMAR EGUN jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazioa hau da: korporazio, elkarte eta partikularrek edozein iradokizun edo planeamenduko beste aukera batzuk aurkeztu ahal izatea.

Iragarki hau Gipuzkoako aldezitako ofizialean, Berria, Tolosaldeko Hitza eta Diario Vascon argitaratu da, Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-b Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneko epean, Alegazio edo erreklamazioak alkatetari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2005eko uztailaren 12an, ALKATEA

**TOLOSAKO UDALA**

IRAGARKIA

Ikusiz akats bat dagoela 2005eko uztailaren 19ko 136 zenbakiduna G.A.O.n E.14 "Leidor" eremuko A.A.S.S.en aldekatez argitaratutako iragarkian, zuzendutako testua argitaratzen da:

Udal Plenoak, 2005eko ekainaren 28an egindako ohiko osoko Bilkuran, hasierako onespene ematea erabaki zuen, honako dokumentu honi:

E.14 "Leidor" eremuko Arau Subsidiarioen aldekate proiektua.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, hilebat bat (iragarki honen azken argitaratutako egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, Hirigintzako Planeamendu Erregelamenduko 161.1. eta 126 artikuluek eta 1976ko Lurzoruz Legearen Testu Bateratuaren 49. eta 40. artikuluek xedatutakoaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berria, Tolosaldeko Hitza eta Diario Vascon argitaratu da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-b Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneko epean, Alegazio edo erreklamazioak alkatetari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2005eko uztailaren 12an, ALKATEA

AMASA ▶ GIZARTEA

# Amasako Iturrioxo taberna eta jatetxeak hasi du bere ibilbidea

Jokin Zabala eta Maribel Amador dira kultur etxe berriaren eraikinean dagoen taberna eta jatetxearen arduradunak

IMANOL GARCIA

Amasako Kultur Etxearen eraikinean Iturrioxo taberna eta jatetxea martxan jarri dute Jokin Zabalak eta Maribel Amadorrek, Udalak jarritako lehiketa irabazi ondoren. Asteburu honetan ekin diote proiektuari, nahi baino bi hilabete beranduago: «Sanisidroetarako nahi genuen ireki, baina arazoa izan da obrak oso berandu bukatu dituztela», azaldu dio HITZARI Zabalak.

Herri afari bat izan dute, ondoren ezkontza eta segituan santiotan sartu dira. «Oso gustura gaude. Badirudi jendea kontentu atera dela eta guk ere gogo handiarekin ari gara lanean», azaltzen dute biek. «Taberna eta jatetxea bereizita daude. Tabernan pintxoak, otartekoak eta kaxuelak emateko asmoa dugu, hamaiketakoa eta egiteko. Jatetxean tradizionaletik pitiin bat ateratzaren den sukaldaritzan mota egin nahi dugu, maila erdi-goikoa».

Sukaldaritzaz Jokin Zabala arduratuko da eta zerbitzuaz eta bezeroekiko arretaz Maribel Amador. Giroak eta dekorazioak ere bere garrantzia izango du. Jatetxearen erdian dagoen argizuloan hormirudi bat margotu behar du Ramon Zuriarrain artista ezagunak —egunotan Koldo Mitxelena erakusketa du— eta horren arabera joango dira dekorazioa burutzen. Bestalde, epe luze eta proiektua finkatzen doan heinean, sukaldaritzan eta ardo dastatze ikastaroak emateko asmoa dute.



Maribel Amador eta Jokin Zabala, Iturrioxoko arduradunak. I. GARCIA



## Inaugurazio herrikoia egin dute Amasako Kultur Etxean

I. Garcia ▶ Amasako Kultur Etxearen inaugurazio herrikoia egin zuten aurreko ostiralean. Agurra abestu eta dantzatu ondoren txalapartariak aritu ziren. Gero 74 lagun bildu ziren Iturrioxon afari herrikoia egiteko. Ondoren, eskusoinuaren eta albokaren doinuekin gaueko ordu txikiak arte iraun zuen festak. HITZA

VILLABONA ▶ SANTIOAK

## Gazte Asanbladakoek ez dute atsedetik hartu

Gaur Jubilatuen Eguna izango da santiotan eta, besteak beste, bazkaria izango dute



Ondokoak Urdanpiletako Gaztearean aurrean bazkaltzen. I. GARCIA



Triki eta Iturbe, mus txapelketa herrikoia irabazleak. HARITZ MATEO

I. GARCIA

Egitarau ofizialak atsedetik hartu zuen atzo santiotan, baina Ondoko gazte asanbladakoek Gaztearean eguna deitu diote eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Gosarian ez ziren asko elkartu, baina gero hurrekin egindako tailerretan eguna alaitzen joan zen. Hogei bat haur bildu ziren eta eskulanak egiten aritu ziren eta malabareak ikasten Ondokoekin. Gero asanbladakoek prestatutako bazkarian 60 bat lagun bildu ziren gazteetza hartu duten Urdanpiletako gaztearean aurrean. Arratsaldean bertsolariak, jokoak eta gero gauean kontzertuak izan zituzten. Gaur bakarlaría izango dute 19:00etan Gaztearean.

Jubilatu eguna izango da gaurkoan, eta besteak beste, bazkaria izango dute Txeringo ikastolan.

Herenegun jokaturako Mus Txapelketa herrikoian 38 bikotek eman zuten izena. Irabazleak Julito Iturbe eta Jose Luis Beñaran Triki izan ziren, Beñat Vitoria eta Borja Hidal-

## EGITARAUA ▶ GAUR

### Jubilatu Eguna.

- 10:30.** Erraldoi eta buruhandien irteera Tolosako dultzaineroek alaituta.
- 11:00.** Tailerrak eta Sum Magoarekin haur jaialdia Txistularien Plazan.
- 11:00.** Eskulan erakusketa Berdura plazan.
- 12:00.** Meza nagusia parrokian.
- 14:00.** Bazkaria Txeringo ikastolan.
- 16:00.** Haur txirindularitza jaialdia plazan.
- 18:30.** Pilota partidak Olaederran.
- 23:00.** Rock kontzertuak Nun Bait, Coilbox eta Jauko Barik taldeen eskutik Erreboteko plazan.

gori 4 eta 3 gailendu ondoren. Hirugarrenak Aitor eta Ainhoa Esnaola izan ziren. Joko garbiko partidaren Hazparnek irabazi zion Angeluri 40-38. Partida parekatua eta polita izan zen.

**Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, 800 enpresa, kateak, denda, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzak euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

[www.bai.euskarari.org](http://www.bai.euskarari.org)

**Bai Euskarari Ziurtagiria!**

**902 430026**

**Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!**

**hitza**

SAN BARTOLOME ETA SAN INAZIO JAIAK ▶

**EGITARAUAK ▶ EGUNEZ EGUN**

Asteburu honetan sainazioak izango dituzte Altzon, lau egunetan zehar. Amezketan berriz sanbartolomeak.

**AMEZKETA**

**Larunbata (abuztuak 20)**

**18:00.** Kalejira txistulari eta buruhandiek.  
**20:30.** Elbiaren jaitsiera eta ikurrinari agurra.  
**21:00.** Zahagiardoa herritarrentzat. Udalak ogia, ardoa, gazta eta kafea jarriko ditu.  
**23:30.** Axular, Split 77 eta Keike taldeen kontzertuak.

**Igandea (Abuztuak 21).**

**Mozorro gau.**  
**09:00.** Kalejira dultzaineroekin.  
**11:30.** Meza nagusia.  
**12:15.** Jubilatuentzako hamaiketako goiko lokalean.  
**13:00.** Herri kirolak (Aiako harpanlariak).

**18:30.** Pilota partidak eta gaztetxoentzat gorritiren abereak.  
**21:00.** Nekin taldearen kontzertua.

**Abuztuak 23 (Astearte)**

**16:00.** Mus txapelketa. Arratsalde guztian zehar, puzgarriak  
**20:30.** Txekor jatea eta sagardoa txobetik denentzat. Ondoren, Ansozregi eta Andoni Larrañaga.

**Abuztuak 24 (asteazkena)**

**09:00.** Kalejira dultzaineroekin.  
**11:00.** Meza nagusia.  
**12:00.** Txakolin dastaketa.  
**18:30.** Dantza emanaldiak. Ondoren, asto lasterketa herriko plazan.  
**22:30.** Triki ta ke taldea.

**Abuztuak 25 (Osteguna)**

Haurren eguna, mozorro

arratsaldearekin eta joko ugarirekin.  
**12:00.** Pilota partidua herriko pilotalekuan.  
**15:00.** Tren Txutxua herrian zehar.  
**17:30.** Patxin eta Patxin pailazoak. Ondoren, mozorroen sari banaketa.  
**20:30.** Sagardo dastaketa herriko plazan. Larrañaga eta Mañukorta bertsolariekin. Ondoren, Kupela taldearekin erromeria. Atsedendian, elbiaren igoera, soka dantza eta txekorraren zozketa.

**ALTZO**

**Bihar**  
**18:00.** Jaien hasiera, herriko trikitilari eta txistulariarekin. Ondoren, Artea dantza taldeko eta Ibarro Alurr taldeko gaztetxoaren emanaldia.  
**20:30.** Zikiro jatea herriko frontoian.  
**12:00.** Epelde eta Larrañaga.

**Etzi**  
**12:00.** Txakoli probaketa. Tarteetan, toka txapelketa herrikoia.  
**15:30.** Plater hausketa herrikoia.  
**17:00.** Pilota partidua frontoi berrian.  
**21:00.** Zahagiardoa  
**24:00.** San Inazio eresia. Ondoren, DJ Abiba goizalderarte.

**Igandea (uztailak 31)**

**San Inazio Eguna.**  
**09:00.** Goiz eresia herriko txistulariekin.  
**10:00.** Meza nagusia. Ondoren, herriko trikitilari eta txistulariak. Jarraian jubilatuen hamaiketako.  
**11:30.** Erlojuaren aurka afizionatu mailako txirindularien XIV. Altzoko Igoera (Calcinor saria).  
**18:30.** Herritarren apustua. Ondoren, Juan Mari Beltran.

**22:30.** Bertso jaialdia Amuriza, Arzallus, Irazu, Lujanbio, Peñagarikano eta Sorozabal bertsolariekin.  
**24:00.** Trikitioa taldearekin dantzaldia goizalderarte.

**Astelehena (abuztuak 1)**

**11:00.** Marrazki erakusketa.  
**12:00.** Umeen bixirindulari probak eta zinta karrera.  
**15:30.** Mus txapelketa azkarra herritarrentzat.  
**16:30.** Poxpolo eta Mokolo pailazoak.  
**17:30.** Merienda.  
**18:30.** Herritarren arteko pilota txapelketaren finalak.  
**21:00.** Altzueta, Aldaiondo, Begiristain, Eguzkitza, Iruin, Isastegi, Saizar, Sarasola, Zabala eta Zalbide sagardotegien sagardo dastaketa (bakoitzak bere kaxuela eraman behar du)  
**23:30.** Laiotz taldearen emanaldia.

# ... hor nabil ni egunero

Bihar arratsaldean San Inazio jaiak hasiko dira Altzon lau egunetarako; abuztuaren 20tik aurrera, berriz, sanbartolomeak izango dira Amezketan



lazio jaien hasierako unea, zeinean gazte ugari bildu ziren herriko plazan jolasteko. OLAIA ESKITXABEL

**NOELIA LATABURU**

*Festarik festa hor nabil ni egunero...* Udarak ez du atsedetik gurean eta bihar bertan jai giroan murgilduko da eskualdeko beste herria. Altzotarren txanda da oraingoan, euren zaindari San Inazioaren ohoretan. Astearte bitarte hamaika ekitaldi izango da herrian, musika, janaria eta kirola protagonista izango direlarik.

«Gure xedea egitarauaren barnean denon gusturako ekitaldiak sartu ahal izatea da», azaldu dute jai batzordekoek.

Nabarmenezkoa da, esaterako, bihar arratsaldean Alurr eta Artea dantza taldeek eskainiko duten emanaldia, bai eta etzi, larunbata, arratsaldean jokatuko diren pilota partidak ere. Hiru mailetan ariko dira bikoteak, kadeteetan, Iburguren eta Leunda pilotariak Ropon eta Artola izango dituzte aurrez aurre. Jubeniletan, berriz, Alonso eta Irure Irazusta eta Olanoren aurka etorkizunekoetan Renobalesek eta Oteizak Baez II.a eta Baez I.a pilotariak izango dituzte aurkari. Bihar zikiro jatea izango da;

bertara joateko txartelak dagoeneko salgai daude Arandia jatetxean. Berauen salneurria 18 eurokoa izango da eta 200 txartela jarri dituzte saltzeko. Igandea jaien egun handia izango da, San Inazio, hain zuzen ere. 11:30ean ohiko erlojuaren aurkako afizionatu mailako txirindularien XIV. Altzoko igoera korrituko dute, Calcinor saria. Bestalde, jai batzordeak babesle —Udala eta Calcinor— eta Alegia, Altzo, Asteasu, Orereta, Legorreta, Amezketak, Lizartza, Tolosa, Belauntza, Ibarra eta Leaburuko

enpresa laguntzaileei eskerrak luzatu nahi izan dizkie, jaiak aurrera eramaterako garaian eskainitako laguntza dela eta. Bien bitartean herritar eta kanpotar guztiak animatu nahi ditu herrira hurbil daitezen.

**Datorren hilean... gehiago**

Elbiaren jaitsierak iragarriko ditu, abuztuaren 20an, sanbartolomeak Amezketan. Alaitasunez beteriko bost egun izango dira gozatzeko. Jai batzordeak guztiak ere «gogo handiz» prestatu ditu, eta «denak garrantzitsuak» badira ere, aipatzekoak ere izango dira. Lehen egunean zahagiardoa izango da herritar guztientzat eta on-

doren Axular, Split 77 eta Keike talde ezaguneki bisitatuko dute herria, euren doinu goxoekin. Igandean izango diren partidak Apezetxea eta Beloki bikoteak Elurbe eta Garmendiaren aurka eta Berasaluze eta Apraiz Baez II.a eta Urrizelki aurka jokatuko dituztenak dira. Gauean, berriz, 12 urte gorazkoen mozorroen irabazle berri emango dute. Lehen sailkatuak 120 euro, bigarrenentzat 80 euro eta hirugarrenentzat 40 euro eskuratuko dituzte, txanpain botila batekin batera. Abuztuaren 23an egingo den mus txapelketan ere lehenengo hiru bikoteentzat izango da saria. Batzordekoek jakinarazi dutenez, bikotekide batek herritarra behar du parte hartzeko. Egun berean egingo den txekor jaterako txartelak udaltxean eta herriko tabernetan egongo dira salgai 12 euroren truke. Puntatik puntara, festaz festa aritzeko aukerarik ez da faltako, bada, gaur bertan hasi eta datorren hilera arte.



## IBARRA ▶

San Bartolomeko  
zozketako  
txartelak salgai

Ibarrako San Bartolome jaietako zozketako txartelak salgai daude. Ondorengo lekuean eskuratu ahal izango dituzte herritarrek txartelak: Ibarrako Danon Txokoa, Arkaitz-azpi, Txumitxa, Atari, Sendi ekintza eta Zubiaurre tabernetan. Txartelak saldu-ta bilduko den dirua, beti bezala gehien behar dutenei laguntzeko bideratuko da. Aurtengoan lortutako diru horrekin Txileko herritarrei lagunduko zaiela adierazi dute.

## LEABURU ▶

Harrizko Zubiko  
bazkaria  
igandean

Aurten ere, Larresorara joateko aukera izango da igandean, Ote Lore elkarteak antolatutako Harrizko Zubiko bazkarira. 943 67 59 31 zenbakian izen ematea.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Oresa. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitz): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrremendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## AGURTZANE BELAUNTZARAN ▶ 'BASETXE TABERNA' SAIOKO FINALISTA

«Espero nuen saria  
jaso dut 'Basetxea'-tik  
atera naizenean»

ETBko 'Basetxea Taberna' programan finalera iritsi da; saioak atek ireki dizkiola eta gustura dago berrobitarra

IÑIGO TERRADILLOS

Azken hilabeteetan Euskal Telebistako *Basetxea Taberna* saioan parte hartu eta bigarren geratu izanagatik egin da ezagun 25 urte dituen Agurtzane Belauntzaran. Telebistako saio horretan bizitako esperientzaren inguruan aritu da HITZAREKIN berrobitarra.

**Nolatan hartu zenuen 'Basetxea'-n aurkezteko erabakia?** Telebistan ari nintzen lanean. *Ze Kosmopolita* saioan, eta audientzia gutxi zuenez saioa amaitzera zihoan. Langabezia geratu behar nintzenez, *Basetxea*-ra sartzeko *casting*era aurkeztea erabaki nuen gehiegi pentsatu gabe. Gero zalan-tzak izan nituen probetara aurkeztu ala ez, baina hobeto pentsatu eta bada ez bada ere joateko erabakia hartu nuen. Izan ere, *Basetxeak* lan munduan atek ireki ahalko zizkidala pentsatu nuen.

**Etzekoei eta lagunnei saiorako aurkeztu behar zinela esatean...**

Etxean harriduraz hartu zuten berria, eta lagunak, berriz ez ziren batere harritu, saltsa guztietan sartzen naizen horietakoa naizelako, eta han primeran moldatuko nintzela esan zidaten. Orokorrean asko animatu ninduen jendeak.

**Nola izan ziren aukeraketa probak.**

Ostalaritzan ea esperientzia nuen galdetu zidaten, nire bizitzaren inguruan aritu nintzen solasean, kamararen aurreko probak egin nituen... abesteko ere esan zidaten, eta nik ezetz esan nien, eta uste dut gustatu



I. GARCIA

zitziaela ezetz esatea eta horregatik aukeratu nindutela.

**Zer nolako balorazioa egiten duzu zure Basetxeko ibilaldiaz?**

34 egun egon ginen han barruan. Gure *Basetxeako* bi egunekin telebistan astebete egiten dute, horregatik luzatu da 3 hilabete saioa. Tabernatik Kanpingera eta kanpingetik tabernara egoten ginen, ezin genuen nahi genuena egin. Kamerak 8 ordu egoten dira gurekin, eta hasieran gogorra egin bazitzaidan ere, ohitzen joan naiz. Bestalde, jende jatorra zegoen eta lagunak ere egin ditut, baina liskarrak ere izan dira. Asko saioak berak xirikatu izanagatik sortu ziren, baina

jendea erraz berotzen zen eta horren bila zebilenik ere bazen. Horiek ekiditen saiatu naiz. Naizen bezala izaten saiatu naiz, baina ohikoa baino guxtiago hitz egin dut, egia da.

**Berriro errepikatuko al zenuke?**

Ez. Nik probatu dut hemendik, eta gehiegi ez da ona izaten, behin egin dut eta nahikoa dela uste dut. Une ez hain politak egon badira ere, esperientzia polita izan da, eta gauza onenekin geratuko naiz.

**Basetxea Tabernan sartu aurretik zertan egin duzu lan?**

Kazetaritza ikasi dut. Albistegietan egin nituen praktikak, eta ondoren Estepan Aldamizekin aritu naiz *Bakarrik edo...* eta *Firin faran* saioetan eta *Ze Kosmopolita* saioan, hirurak ETBn. Horretaz gain, ostalaritzan ere aritu izan naiz txiki txikitik.

**Ateak ireki al dizkizu saio honetan parte hartu izanak?** Bai, hain zuzen ere *Basetxeako* hurrengo edizioan egingo dut lan, baina kasu honetan erredakzioan. Bigarren geratu izanagatik saria ez bazegoen ere, nik sari bat bezala hartu dut. Oso gustura nago.

## IBARRA ▶

Ibarrak Lehen  
A mailan  
mantentzea  
lortu du

Universidad de Navarrak utzitako lekua beteko du 2005-2006 denboraldian

I. TERRADILLOS

Ibarraren areto futbol taldeak 2005-2006 denboraldian pasa den urteko maila mantentzea lortu du azkenean, beraz, berriro ere Lehen A mailan lehiatuko da.

Azter eginez, aurtengo ligaren amaian, maila galtzeko zorian aurkitu ziren Universidad de Navarra taldearen jaietsierak bultzatuta. Horrekin konforme ez eta bide guztietatik ekin zioten taldeko agintariek mailaren jaietsiera ekiditeko. Horrela, Areto Futbolako Batzorde Nazionalari ofizialki hainbat aukera aurkeztu zitzaizkion. Horren ostean, Universidad de Navarra taldeak ez zuela hurrengo denboraldian jokatuko zabaldu zen, eta segidan talde horrek jokatu ez bazuen ibartarrek mantendu egin behar zutela maila adierazi zuten.

Ibarrak Lehen A mailan jarraitzeko aukerak areagotu egin ziren Peñucas erretiratu egin baitzen beste talde bantentzat lekua utziz. Hala ere itxaropen hori galtzen joango zen, izan ere, Universidad de Navarra taldekoek ez zutela datorren urtean jokatuko uste bazen ere, izena eman zutenaren berria zabaldu baitzen. Gainera, hori horrela izan ala ez, ibartarrek ez zeuden ziur nafarrek jokatzen ez bazuten legez hutsune hori beraiek bete ahalko zuten. Urduritasun oneak bizi zituen Ibarrrak, hori gutxi balitz, jokalaria batzuk B mailara jaisteko prest ez zeudela azaldu baitzuten.

Etorkizun iluna ikusten hasi baziren ere, pasa den astean jaso zuten berriarekin gauzak erabat aldatuko ziren; Universidad de Navarra taldea B mailan izen eman zuela jakin zuten, eta aste honetan iritsi zaie Mardildik berri garrantzitsuei, Lehen A mailan jokatu ahaliko duela taldeak, alegia. Albiste ona izan da Ibarrrarentzat bai eta jarraitzaileentzat ere. Iazko zorte txarra ahaztuta, ona aldeko duela kasu honetan dirudi.

PILOTA ▶

# Errenteriako txapela irabazi du afizionatu mailan Bengoetxeak

Iparragirre, berriz, aurkari izan dira, azpitxapeldun gelditu da; gazteen mailan, Mikel Iriarte ere bigarren gelditu da

JAIONE ASTIBIA

Ibai Bengoetxea leitzarrak, Patxi Ruiz de Larramendi eulatearra atzeko koadroetako kidea-ekin batera, Errenteriako Pilota Txapelketa irabazi du, afizionatu mailan. Asteburuan jokatu zuten finala eta 22 eta 7 ko emaitza eskuratuta, Aurrera elkarteko pilotariek saria etxeratu zuten.

Aurkari, Dominguez eta Iñaki Iparragirre izan zituzten, atzeko jokalaria leitzarra izanik bikote honetan ere, nahiz eta ez duen Aurrera elkartean jokatu. Markagailuak adierazi zuen alde, kantxan gertatu zenaren isla izan zen partiduko jokoa, Dominguezek ezker eskua minduta zuen eta Iparragirrek, berriz, ez zuen jokoa asmatu. Txapeldunak, ordea, ongi jokatu zuten, asma-tzat eta «uste baino errazago»

irabazi zutela zioten: «Erraz irabazi dugu, aurkariek ez baitute beren eguna izan», zion Bengoetxeak berak. «Gu oso gustura aritu gara, txapelketa osoan bezala. Patxi ere oso gustuko kidea dut eta elkarrekin oso ongi aritu gara lanean», baieztatu zuen txapeldunak.

Gazteen mailan ere finalean zen Mikel Iriarte leitzarra, aurrean Mendiluze lagun zuela. Baina honetakoan, 17 tantotan geldituta, Uzkudun-Larrañagak eraman zuten txapela.

## Antiguan saiklapanetan

Antiguako txapelketan, ordea, ongi doazkio gauzak Iriarteri, hemen ere gazteen mailan eta aurrean Andreu duela, dagoneko hurrengo faserako sailkatu baitira, aste honetan bertan jokatu duten bigarren partiduan 22-17 galdugatik,

aurrenekoan 22-21 irabazi zutelako.

Txapelketa horretan berean, baina 22 urtez behikoen mailan, Mikel Olazabal aresoarrak ostiralean jokatu zuen lehen partidua, Betelu lagun zuela. Airez ikaragarritzko jokaldiak eginez, partiduko jokalaririk hoberena Olazabal bera izan bazen ere, markagailuak, ozta-ozta, baina, aurkariaren, alegia, Gonzalez eta Lopezen aldeko koloreak adierazi zituen azkenean, 22-18ko emaitzarekin. Oraindik ligaxkakako bigarren partidua gelditzen zaie jokatzekoa, «ziurrenera, aste hondar honetan egitekoa» omen dutena, elkartetik jakitera eman dutenez.

Bitartean, Amezketa Txapelketan kanporaketa jokatzeko hitzordua egina diote Olazabali, larunbatean 22:00eta rako.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Lehenago astean moldaketetan aritu ziren Ateka Beltzan. HITZA

## Gazte taldeak batzarra deitu du eragileekin

«Ateka Beltzaren erabileraz» hitz egiteko, han bertan eginen dute bilera ostiralean

J. ASTIBIA

Leitzako Gazte Asanbladak «herriko eragile guztiak eta orohar interesa duen herritar oro», gonbidatu ditu, bihar ostirala, 20:00etan Ateka Beltzan eginen duten batzarrera.

Gazte Asanbladak berak atzo jakinarazi zuenez, «gu egiten hasi garen moduan, herriko taldeen artean Ateka Beltza erabiltzen hasteko asmorik badagoen, nola egin daitekeen... hitz egin nahi dugu», zioten. Bide batez, «denon artean lekua nola dagoen

ikusteko» ere baliatuko omen dute, ostiraleko bilkura.

«Garrantzitsutzat» jo zuten bertara ahalik eta eragile gehien joatea eta ziotenez, erabiltzeko prest daudenen artean («auzolanaren bidezko elkarlana») proposatuko omen dute lanerako.

Leitzako Gazte Asanblada lehenago asteazkenean, hilak 20, hasi zen Ateka Beltza erabiltzen, «beheko solairuko alde bat», zehaztu zuten, eta «moldaketa lanak» egiten aritu omen dira, orain arte, bertara bildu diren gazteen artean.

LEITZA ▶ PILOTA

## Plazako buruz-burukoan finalerdiak jokatu dira asteburu honetan bertan

Hiru partidutara jokatu ari direlarik, finalera zein joanen den erabakiko dute



Alduntzin pilotari ematen, Telletxea erne dagoela. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Pasa den larunbatean hasi zen aurtien lehendabiziko aldiz egiten ari diren Plazako *Mano-mano* eta 8 jokalarititik erdiak kanporatuta, finalerdiak jokatu dituzte larunbat honetan, eta hurrengoan, abuztuko aurrenekoan, finala.

Horrela, bertara ikusle mordoska bildu zelarik, jokalariek fin asko aritu ziren pilotan, tantoari eusteagatik plazako harritzko paretan aurka min hartzeko arriskuan behin baino gehiagotan. Honako hauek izan ziren emaitzak: U. Olano 22, J. Mariñelarena 10; I. Alduntzin 22, M. Telletxea 20; H. Bengoetxea 22, A. Abruzza 13; I. Aldaia 22, I. Mariñelarena 12.

Horrela, 4 irabazleak ariko dira finalaurrean, elkarren aurka ariko diren pilotariak, aurreneko aitatu diren biak izanik alde batetik, eta beste biak, bestetik. Hots, Olanok eta Alduntzinek jokatu dute partidu bat eta Bengoetxeak eta Aldaiak, bestea.



Koldo Mitxelena Kulturunea  
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kultura

## ERAKUSKETAK



*Iraulza ostein  
Irango artista garaikideak*

## Erakustaretoan


Irailaren 21etik urriaren 1era

Ramon Zuriarrain



## Ganbaran

Uztailak 20tik irailaren 24era



ORDUTEGIA  
asteartetik larunbatera:  
10:30-14:00 / 16:00-20:30  
astelehen, igande eta jaiegunetan itxia



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** AHTren aurkako akanpada Langurren: 10:30ean Rapelaza tailerra; 11:00etan hitzaldia *AHT zer da eta gaur egungo egoera*; 14:00etan bazkaria; 16:00etan asanblada; 17:00etan pilota saioa; 19:00etan hitzaldia *La educacion y el estado de sumisio inconsciente*; 21:00etan afaria eta 23:00etan Bulebarrean Ttakun ttakun gaua ZSK eta Ttakunpa taldeekin.

**Aitzo.** San Inaziotako ostiraleko zikro jaterako txartelak salgai daude Arandia jatetxean.

**Anoeta.** Euskal tribial txapelketa antolatuta dute Gaztetxean 23:00etan.

**Ibarra.** Sendi Ekintzak jakinarazten die bazkideei sagardotegiko giltzak gaur jaso daitezkeela bertan 19:00etatik 21:00etara 15 eurotan.

**Ikaztegieta.** Jaietako herri afaria abuztuaren 6an izango da. Izen-ematea, Toki alai tabernan igandea arte.

**Tolosa.** Haur Eskolako afari-merienda 20:00etan.

**Tolosa.** Euskal selekzioaren aldeko Kostako Itzulia txirindulaz antolatuta du Esait-ek larunbaterako. Triangulotik abiatuko dira 09:00etan. Bazkarirako izen-ematea, Txiki tabernan, 15 eurotan.

**Tolosa.** KZgunea abuztuan itxita egongo dela jakinarazi dute. Zabalik da iraileko ikastaroetarako izen-ematea.

**Tolosa.** Atsedena aisialdi taldeak Errioxan egingo duen kanpaldian Familiaren Eguna izango da abuztuaren 7an. Eguna pasatzera joan nahi duenak katekistaren bati esan edo 628 883435 telefonora deitu behar du..

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia M.I. Elbarren 52. 112.  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia 7. 943 67 06 48.

**IRRATIA**

**Txolarre (FM 107, FM 101)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* agenda, eguraldia, HITZA, lehiaketa...  
19:00. Errepikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Done Jakue bidea markatzen

**ANOETA ▶** Bidea nondik dihoan seinalizatu du Udalak; landa eremuko seinalizazioaz Eusko Jaurirantzako Kultura Saila arduratzen da

JOXEMI SAIZAR

Santiago eguna pasatu berria da. Makina bat erro-mes elkartu zen Galiziako hirian. Uda honetan ere jende ugari ibiliko da Done Jakue bidea egiten. Ibilbide erabiliena frantsesa deitzen dutena izan arren —Donibane Garazi, Iruña, Burgos, Leon—, beste ibilbide asko daude Santiagora iristeko.

Horietakoa bide bat Tolosaldekoetik pasatzen da, Irundik abiatuta, Donostiatik barrena iristen dena, Segura eta Gasteiztik barrena Santo Domingo de la Calzadan beste biderekin elkartu arte.



Done Jakue bideko seinaleak Anoetako plazan. IMANOL GARCIA

Anoetan bide seinaleak jarri berri dituzte Idiakaitez auzoan, San Joan kalean, plaza txikian eta Sortalde kalean eta bi loseta lurrean. Hiri eremuko seinalizazioaz udalak arduratzen dira, Jaurirantzako Industria Merkataritza eta Turismo Sailak %50eko diru laguntza emanaz. Landa eremuko seinalizazioaz Eusko Jaurirantzako Kultura Saila arduratzen da eta udan egingo dute.

**AGURRAK ▶**




**URTE ASKOAN**

Zorionak, Ander! Maite zaitugu!! Etxekoak.

**HITZA,**  
zorion agurren tartera

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udalareko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!



**URTE ASKOAN**  
**Oier (Amarotz).**  
Gaur 12 urte. Etxekoan partetik.



**URTE ASKOAN**

Ander, ebean nahi zaitugu! Lagunak.



**URTE ASKOAN**  
**Ainhize Sagasti Goenaga (Albiztur).**  
Gaur urtebete. Gurasoen partetik.